

Getxon, 2017ko irailaren 14an

ESKOLA-JANTOKIA INFORMAZIO ORRIA (2017-18 IKASTURTEA)

1.- EGUNEKO MENUEN KUOTAK

- **OHIKO JANKIDEAK izateko**, astero **4 egun**, gutxienez, erabili behar da jantoki-zerbitzua.

Urriaren 14 arte aukera dago Ohiko jankidearen kuota izateko. Data hau pasa eta gero, jantokiko zerbitzua erabili nahi bada noizbehinkako jankidearen kuota ezarriko da, nahiz eta egun guztietan jantoki zerbitzua erabili.

Eusko Jaurlaritzak esandakoari jarraituz, **ikasturte hasierako kuotak pasa den ikasturteko berberak izango dira.** Geroago posiblea da aldatuta izatea. Horrela izatekotan aditzera emango dizuegu.

- Ohiko jankide **GARRAIATUAK** (Subentzionatutako ikasleak): **3,30 €**
- Ohiko jankide **EZ-GARRAIATUAK** (Subentziorik gabeko ikasleak): **4,60€**

- **NOIZBEHINKAKO JANKIDEAK:**

- Bazkari zerbitzua **egun bakoitzak 5,20 €**.

2.- JANTOKIAREN ORDAINKETA : Hil honen **18a baino lehen**, zuen aldetik bestelako oharrik jaso ezean, zuen seme-alabek jantokiaren zerbitzua erabiltzen segituko dutela kontsideratuko dugu, eta, beraz, egun horretan kobratuko zaizu kontu korrontean ordainketari dagokiona.

3.- HONELAKO DATUEN ARABERA ZEHAZTUKO DA ORDAINDU BEHARREKOA:

- **HAUR HEZKUNTZAKO 2 URTEKOAK**

- **2 URTEKO OHIKO IKASLEAK.**

Ikasturte honetan **162 egunetan** izango da jantoki-zerbitzua, irailetik ekainera eta Eusko Jaurlaritzak jantokia kudeatzeko ezarri duen aplikazioari egokitzeko, **10 ERREZIBO** pasatuko dizkizuegu. Hau da, **IRAILEKO eta EKAINEKO ERREZIBOAK PASATUKO DIZKIZUEGU.**

Kuotak honela geldituko dira:

$162 \times 4,60 = 745,20€$ ikasturte osoa. Kopuru hau 10 hilabeteetan banatuko da.

$745,20 : 10 = \mathbf{74,52€}$ **HILEROKO ERREZIBOA**

- **2 URTEKO NOIZBEHINKAKO IKASLEAK.**
Egun bakoitzean **5,20€**.

HAUR HEZKUNTZAKO 3, 4, 5 URTE ETA LEHEN HEZKUNTZAKO JANKIDEAK

Ikasturte honetan 173 egunetan izango da jantoki-zerbitzua, irailtik ekainera eta Eusko Jaurlaritzak jantokia kudeatzeko ezarri duen aplikazioari egokitzeko, **10 ERREZIBO** pasatuko dizkizuegu. Hau da, **EKAINEAN ere ERREZIBOA PASATUKO DIZUEGU**.

Kuotak honela geldituko dira:

- **OHIKO JANKIDE GARRAIATUAK:**
173egun x 3,30€/egun = 570,90€ ikasturte osoa. Kopuru hau 10 hilabeteetan banatuko da.
 $570,90 : 10 = \mathbf{57,09€}$ HILEROKO ERREZIBOA
- **OHIKO JANKIDE EZ- GARRAIATUAK:**
173egun x 4,60€/egun = 795,80€ ikasturte osoa. Kopuru hau 10 hilabeteetan banatuko da.
 $795,80 : 10 = \mathbf{79.58€}$ HILEROKO ERREZIBOA
- **NOIZBEHINKAKO ERABILTZEAK**
Egun bakoitzean **5,20€**.

4.- JANTOKIKO BAJAK: Jantokia ez erabiltzekotan, **48 ordu lehenago** eman beharko da **honen berri**. Dirua berreskuratu ahal izateko **ez-etortzeak astebetez edo aste gehiagoz jarraian** izan beharko du eta **itzuli beharreko zenbatekoa** ikasleak ordaindu beharreko kuotaren % 50a izango da.

6.- APARTEKO MENUAK: Aparteko menu berezia, (**alergiak, intolerantziak ,...**) behar izatekotan, **3 egun lehenago** eskatu behar da, jantoki telefonoan, bestela ezin da ziurtatu dieta berezia helduko den egun horretarako. **Ez da zerbitzatuko honelako dieta berezirik** ez badaukagu aldeztatik **dagozkien txosten medikua eta jarraitu behar den protokoloa**.

Dieta lehorgarri (“astringente” delakoa) behar izatekotan, **egun berean 11:00ak baino lehenago** posiblea da eskatzea telefonoz.

Edozein informazio edo kontsultarako honako telefonora deitu: **94 4911430 - Jantokia**